

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 2803

*AGINDUA, 2023ko maiatzaren 30ekoa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzari buruzko jarduerak gauzatzeko dirulaguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuan aurreikusitako laguntzen 2023rako deialdia.*

Bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzari buruzko jarduerak gauzatzeko dirulaguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuan, ezagutzaren edozer eremutan bizialdi osoko ikaskuntzarekin lotutako ikaskuntza-ekintzak egin daitezela sustatzeko laguntzak arautu dira.

Era berean, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legeko 4. artikuluan aurreikusitako xedekak betetzen lagunduko dute agindu honetako laguntzek.

Bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoak ekitaldi ekonomiko bakoitzean indarrean izango dituen aurrekontu orokorrak zehaztuta daudenean, programei dirulaguntzak eman edo ez erabakitzeke arauak eguneratu, berrikusi edo, hala behar badu, ezarri beharko dira. Zehaztugabeko indarraldia eman zitzaien dirulaguntzen kasuan, dagokien deialdia egin beharko da; halaxe xedatu baita Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan.

Deialdi hau Hezkuntza Sailaren 2023. urterako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago, zeina Hezkuntzako sailburuaren Aginduak onartu zuen eta Hezkuntza Sailaren <https://www.euskadi.eus> webgunean argitaratuta dagoen.

Kontuan izanik diruz lagun daitezkeen jardueretatik indarraldi zehaztugabea nahiz aldi baterako indarraldia izango dutenak arautu direla uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuan, eta dekretu horretako 10.2 artikuluan xedatutakoa betetze aldera, hots, publikotasun-printzipioa betetze aldera, egoki den deialdia egingo du Hezkuntza Sailak. Hortaz, agindu hau eman eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharra dago.

Horregatik guztiagatik, hau

#### EBAZTEN DUT:

##### 1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da bizitza osoan zehar egiten den ikaskuntzari buruzko jarduerak gauzatzeko dirulaguntzak arautzen dituen uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuan aurreikusitako laguntzak 2023rako deitzea.

##### 2. artikulua.– Eskaerak aurkeztea.

Eskaerak aurkezteko epea hilabete izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak eskaera aurkezten den urte naturalean hasiak izan beharko dute, eta gauzatzeko epea hurrengo ekitaldiko uztailaren 31ra artekoa izango da.

### 3. artikulua.– Izapideak modu elektronikoan egitea.

1.– Erakunde eskatzaileek laguntza-deialdi honetan eskatzen diren izapide guztiak telematikoki egin beharko dituzte, eta behar den dokumentazioa aurkeztu beharko dute xede horretarako eskuragarri dituzten txantiloak erabiliz.

Eskaera izapidetzeko jarraibideak eskuragarri dituen administrazio-prozeduraren informazio-fitxa, eskaeraren inprimakira sartzeko erabiltzen dena eta erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak dituen, helbide honetan eskura daiteke:

[www.euskadi.eus/servicios/0051211](http://www.euskadi.eus/servicios/0051211)

2.– Eskaeraren osteko izapideak, zuzenketak eta justifikazioak barnean direla, bide elektronikoz egingo dira, «Nire karpeta» atalaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan onartuta dauden identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak helbide elektroniko honetan daude eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkaria Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoan inskribatu beharko da, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/ordezkarik>

4.– Erakunde eskatzaileek euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dituzte eskaera eta gainerako dokumentuak, nahi duten hizkuntzan. Halaber, prozedura osoan zehar, erakunde eskatzaileak hautatzen duen hizkuntza erabiliko da, hala xedatuta baitago Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan.

Eskaerak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartzen direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

### 4. artikulua.– Ebaluazio-irizpideak.

118/2019 Dekretuaren 14. artikuluan xedatutako irizpideak betez ebaluatuko dira eskaerak, deialdi honetako II., III. eta IV. eranskinetako eskemak oinarri hartuta.

Horretarako, uztailaren 23ko 118/2019 Dekretuaren 11. artikulua xedatzen duen moduan, dirulaguntzaren eskaerarekin batera, proiektuan egingo diren ekintza guztien deskribapen-memoria aurkeztu beharko da, beste dokumentazio batzuen artean. Memoria horrek V., VI. eta VII. eranskinetan jarduera mota bakoitzerako zehaztutako inprimaki normalizatuan ezarritako eskemari jarraitu beharko dio. Inprimaki horiek [euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) helbideko egoitza elektronikotik jaitsi ahal izango dira (betetzeko hutsuneak dituen PDF formatuan)

Ez da onartuko memoria horretako puntuen azalpen-eranskinak orokorrean erabiliz egindako deskribapen-memoriarik aurkeztea.

#### 5. artikulua.– Finantzaketa.

1.– 930.000,00 euro erabiliko dira deialdi hau finantzatzeko, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituen arabera.

2.– Hona hemen jarduera-mota bakoitzarentzat erabilgarri egongo diren gehieneko zenbatekoak:

- a) Prestakuntza-jarduera espezifikoak: 170.000,00 euro.
- b) Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak: 700.000,00 euro.
- c) Esperimentazio-proiektuak: 60.000,00 euro.

#### 6. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Deialdi honen funtsen kargura honako gastu hauek finantzatu ahal izango dira: proiektuan zuzenean parte hartzen duten eta diruz lagundutako jarduera garatzeko ezinbestekoak diren langileen gastuak eta diruz lagundutako jarduera garatzearen ondorioz zuzenean sortutako funtzionamendu-gastuak.

Finantzatu daitezkeen gastu guztien % 10 izan daitezke, gehienez ere, funtzionamendu arrunteko gastu; besteak beste: proiektuaren zuzendaritza-, koordinazio-, kudeaketa- eta administrazio-gastuak; komunikazio-gastuak; ura; argia eta lokalen alokairua edo amortizazioa.

#### 7. artikulua.– Laguntzaren zenbatekoa.

Hona hemen jarduera-mota bakoitzarentzako gehieneko zenbatekoak:

a) Prestakuntza-jarduera espezifikoak: plaza eta prestakuntza-ordu bakoitzeko 7 euro gehienez; 18.000,00 euro gehienez jarduera bakoitzeko.

Ezingo dira diruz lagundu herritarrak digitalki gaitzeko prestakuntza-jarduera espezifikoak.

b) Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak: 39.000,00 euro, gehienez ere, bitartekaritza-zerbitzuari egozten zaion eta lanaldi osoz aritzen den bitartekari bakoitzeko, zerbitzua eman den 12 hilabeteko. Bitartekaritza-zerbitzua gutxienez 100.000 biztanleko udalerrri batean edo gutxienez 60.000 biztanleko eskualde batean ematen bada, lanaldi osoz arituko den bitartekari bat egotziko da. Bitartekaritza-zerbitzua 12 hilabete baino gutxiagoko epean gauzatzen bada, gehieneko zenbatekoa hainbanatu egingo da.

c) Esperimentazio-proiektuak: 20.000,00 euro gehienez jarduera bakoitzeko.

#### 8. artikulua.– Dirulaguntzak justifikatzea eta ordaintzea.

1.– 118/2019 Dekretuaren 18.1 artikulua xedatzen duenaren arabera, aurreikusitako jarduerak egiteko emandako dirulaguntzak bi zatitan ordainduko dira:

Lehenengo ordainketa, erakunde onuradunak dirulaguntza onartutakoan, emandako dirulaguntza osoaren % 45.

Bigarren ordainketa, gainerako % 55arena, 118/2019 Dekretuaren 18.1.b) artikuluan aipatutako dokumentazioa jaso ondoren. Dokumentazio horrek VIII., IX. eta X. eranskinetan jarduera mota bakoitzerako (amaierako memoria) eta XI. eranskinean (memoria ekonomikoa) zehaztutako inprimaki normalizatuan ezarritako eskemari jarraitu beharko dio. Inprimaki hauek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan eskuratu ahal izango da, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2022/bozi/web01-tramite/eu/>

Dokumentazio hau aurkezteko gehieneko epea bi hilabetekoa da, ebazpenean jasotako ekintza guztiak amaitu ondoren.

Bigarren ordainketaren % 50en zenbateko baliokidea kontura ordaindu ahal izango da, 118/2019 Dekretuaren 18.2 artikuluan ezarritako baldintzen arabera.

2.– Administrazioak laguntzak eta dirulaguntzak ordaindu ahal izateko, Eusko Jaurlaritzako dagokion datu-basean egon behar du erakunde onuradunak.

Alta emateko edo hirugarren interesdunaren datuak aldatzeko, Eusko Jaurlaritzak eskuragarri jarritako hirugarrenen erregistro telematikora jo beharko da, helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

9. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa.

Datu pertsonalak tratatu eta izen honetako tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira: Laguntza eta dirulaguntzak Lanbide Heziketako ikastetxeentzat eta entitate laguntzaileentzat.

Arduraduna: Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: Laguntza ekonomikoen eskabideak izapidetzea, parte-hartzaileak eta/edo interesdunak identifikatuta. Entitate laguntzaileentzako dirulaguntzak.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzean egin behar den eginkizun bat betetzeko.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

Hartzaileak:

– Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

– Ekonomia eta Ogasun Saila.

Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: gure webgunean begira dezakezu datu-babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza.

Araudia:

– Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra.

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

## AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko

Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, hala xedatuta baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, eta, horretarako, bi hilabete izango dira, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita, hala xedatuta baitago Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a) eta 46.1 artikuluetan.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 30a.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

## I. ERANSKINA

## BIZIALDI OSOKO IKASKUNTZARI DAGOZKION JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZAK

INSTRUKZIO-ORGANOARI ZUZENDUA

TEKNOLOGIAREN ETA IKASKUNTZA AURRERATUEN ZUZENDARITZA

---

Datu pertsonalak

Titularra

Identifikazio-dokumentua \* \_\_\_\_\_ Zenbakia \* \_\_\_\_\_

Entitatearen izena \* \_\_\_\_\_  

---

Ordezkaria

Identifikazio-dokumentua \* \_\_\_\_\_ Zenbakia \* \_\_\_\_\_

Izena \* \_\_\_\_\_

Lehen abizena \_\_\_\_\_ Bigarren abizena \_\_\_\_\_

Sexua

Gizonezkoa Emakumezkoa 

---

Erakunde eskatzailearen datu fiskalak dituen probintzia / lurraldea \*

---

Jakinarazpenak eta komunikazioak egiteko kanala \*

 Elektronikoa

Abisuak jasotzeko datuak

Helbide elektronikoa: \_\_\_\_\_

Mugikorra: \_\_\_\_\_  

---

Jakinarazpen, komunikazio eta abisuetarako hizkuntza\*

 Euskara Gaztelania

## Erantzukizunpeko adierazpenak

### Adierazten dut erakunde eskatzaileak:

Ez du zigorrik jaso, ez penalik ez administratiborik, laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzea galarazten dionik.

Ez du dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko ezgaitzen duen legezko debekurik, espresuki aipatuta sexu-diskriminazioagatik gertatutakoak.

Derrigortasun-kasuetan, entitateak berdintasun-plan bat indarrean duela eta/edo sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurriak ezarri dituela egiaztatzea, indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzetan.

Diruz lagunduko den jarduerak ezin du sexuan oinarritutako bereizkeriarik eragin.

Laguntza hauen onuradun izateko, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legean (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsitako testu bategina), eta, orokorrean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan ezarritako eskakizunak betetzen ditu.

Ezarritako zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ditu, baita dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ere.

Ez du diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 50etik gorako azpikontrataziorik egingo.

Helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo beste baliabide batzuk eskatu, eta, hala badagokio, jaso dituztela adieraziko du, edozein administratziotatik edo erakunde publiko zein pribatutatik etorriak direla ere.

Erakunde eskatzaileak adierazten du eskaeran eta dokumentazioan jasotako datuak egiazkoak direla, eta laguntza hauen onuradun izateko indarrean den araudian ezarritako betekizunak betetzen dituela. Erakundeak betekizun hori egiaztatzen duten agiriak ditu, eta Administrazioaren esku jarriko ditu eskatzen dizkionean.

Era berean, erakundeak konpromisoa hartzen du betekizun horiek dirulaguntza jasotzeko eskubidea duen bitartean betetzen jarraitzeko.

Ebazpenean kontuan hartutako zirkunstantzien edozein aldaketa jakinarazteko konpromisoa hartzen du.

### Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa

Datu pertsonalak tratatu eta izen honetako tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira: «Laguntza eta dirulaguntzak Lanbide Heziketako ikastetxeentzat eta entitate laguntzaileentzat».

- Arduraduna: Teknologiaren eta Ikaskuntza Aurreratuen Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.
- Xedea: Laguntza ekonomikoen eskabideak izapidetzea, parte-hartzaileak eta/edo interesdunak identifikatuta. Entitate laguntzaileentzako dirulaguntzak.

- Legitimazioa:
  - o Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko.
  - o 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
  - o 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- Hartzaileak:
  - o Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.
  - o Ekonomia eta Ogasun Saila.
- Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.
- Informazio gehigarria:
  - o Datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehatza kontsultagai duzu helbide honetan: [www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/039900-cap2-es.shtml](http://www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/039900-cap2-es.shtml)
- Araudia:
  - o Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra ([eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES](http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES))
  - o 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa ([www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673](http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673))

Zer dokumentu eman diren

Dokumentu mota	Izena

Aurrez aurkeztutako dokumentuak

Dokumentu mota	Entregatutako dokumentuaren izena	Zein organori entregatu zaion	Zer egunetan eman den

Instrukzio-organoak ofizioz egiaztatzeakoak

Aplikatu behar den araudiarekin bat etorriz, prozedura honen instrukzio-organoak datu hauek egiaztatuko ditu administrazio eskudunean:

- Zerga-betebeharrak egunean izatearen datuak (EAEko foru-aldundiak edo Estatuko Zerga Agentzia)
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko (GSDN) betebeharrak egunean izatearen datuak.

EZ DUT ONARTZEN prozedura honen instrukzio-organoak ofizioz egiaztapenak egitea (39/2015 Legearen 28. art.).

Uko eginez gero, prozeduran eskatutako dokumentu guztiak aurkeztu beharko dira.

Honek elektronikoki sinatua:

## II. ERANSKINA

## PROIEKTU MOTA: PRESTAKUNTZA-JARDUERA ESPEZIFIKOAK

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Ezingo dira diruz lagundu herritarrak digitalki gaitzeko prestakuntza-jarduerak.

**a) Honako hauen zehaztasun-maila: prestakuntza-jarduera zuzentzen zaien pertsona-taldeen ezaugarriena; talde horren kuantifikazioarena eta ase nahi diren prestakuntza-premiarena; bete nahi diren helburuena – onuradunek gaitasunak eskuratzeari eta haien kualifikazioa hobetzeari dagokionean– eta prestakuntza-jardueran aurrera egiten jarraituko duten hartzailleena. Lortu nahi diren helburuen lorpena ebaluatzeko proposatutako adierazleen koherentzia eta baliozkotasuna (gehienez: 25 puntu)**

- Hartzailleen kolektiboaren ezaugarriak eta kuantifikazioa (gehienez 5 puntu)
  - Prestakuntza-jardueraren hartzailleak 30 urtetik gora dituzten eta Bigarren Hezkuntzako graduatua lortu ez duten pertsonak dira, edo 55 urtetik gorakoak (3 puntu)
  - Jardueraren hartzailleen zerrenda erantsi da, datuak sexuaren eta adinaren arabera bereizita (2 puntu)

Prestakuntza-jardueren hartzailleen adina: amaierako memorian hasierako eskaeran adierazitakoaren % 20tik gorako desbideratzerik antzematen bada, eskaerako balorazioa berrikusiko da.
- Ase nahi diren hartzailleen prestakuntza-premiak (gehienez 10 puntu)
  - Lanbide-kualifikazioa hobetzeko eta eguneratzeko prozesuetan sartzeko beharrezkoak diren oinarritzko kompetentzietako gabeziak konpondu nahi dira, gaitasun digitalak izan ezik (10 puntu)
  - Ase nahi diren prestakuntza-premiak autonomia pertsonala hobetzeko (kompetentzia digitalak izan ezik), gizartearen partaidetza eta boluntariora sustatzeko eta 55 urtetik gorakoen artean inguruko proiektu komunitarioekiko lotura sustatzeko gaikuntzarekin lotuta daude (10 puntu)
- Lortu nahi diren helburuak kompetentziak eskuratzeari eta kualifikazioak hobetzeari dagokionez (gehienez 10 puntu)
  - Helburuak zehaztaperen hauen arabera idatzita daude (5 puntu):
    - Lanbide-kualifikazioa hobetzeko eta eguneratzeko prozesuetan sartzeko oinarritzko kompetentziak eskuratzea edo
    - Autonomia pertsonala hobetzeko eta 55 urtetik gorakoek herrian parte hartzeko gaikuntza.
  - Helburuak bat datoz hartzailleen kualifikazioarekin eta prestakuntza-premiekin (2 puntu)
  - Adierazle koherenteak eta baliozkoak proposatzen dira helburuak lortzeko (3 puntu)
- GUZTIZKO PARTZIALA**

**b) Erakunde eskatzailearen kaudimen teknikoaren helduen prestakuntzaren arloan, bereziki kualifikazio baxuko pertsonekin, eta prestakuntza-jarduera espezifikokoak euskaraz zein gaztelaniaz egiteko gaitasuna. Kaudimen teknikoaren oinarria izango da garatu nahi den jardueraren esku jarriko diren baliabide materialen kalitatea eta giza baliabideen esperientzia eta prestakuntza (gehienez 25 puntu)**

– 50 ordutik gorako iraupena duten ikastaro bakoitzeko edo  
 – 20 ordutik gorako ikastaro-multzo bakoitzeko, guztiek batera gutxienez 60 ordu batzen badituzte  
 Aurreko a) apartatuan deskribatutako ezaugarriak betetzen badituzte eta proposatutako jarduera emango duten profesionalak helduei eman badizkiete azken 3 urteetan (0,50 puntu, gehienez 10 puntura arte, baldin eta ebidentziak aurkezten badira).

Uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaren arabera Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko euskararen C1 maila eta horren baliokideak egiaztatzeko proposatutako jarduera emango duen profesional bakoitzeko. Dekretu horrek euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua aldatzen du (puntu 1 profesional bakoitzeko, gehienez ere 4 puntu arte, baldin eta ebidentziak aurkezten badira).

Proposatutako jarduera emango duen profesionalak jaso dituzten emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zuzenean lotutako gaiari buruzko eta gutxienez 20 orduko ikastaro bakoitzeko (0,20 puntu, gehienez 3 puntu arte, baldin eta ebidentziak aurkezten badira). 150 ordu baino gehiagoko iraupena duten ikastaroak (3 puntu).

Baliabide materialak egokiak eta behar bestekoak dira jarduera garatzeko (5 puntu).

Ikasmaterialak eta publizitatean nahiz jarduera osoan erabilitako materialak hizkera ez-sexista erabiliz idatzita badaude eta irudiek eta testuek genero-rolak apurtzea sustatzen badute (3 puntu, baldin eta ebidentziak aurkezten badira).

**GUZTIZKO PARTZIALA**

**c) Garatuko den prestakuntza-jardueraren zehaztapena: edukiak, metodologia, ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak, irauten duen ordu kopurua eta aurreikusitako programazioa. Proposatutako prestakuntza-jardueraren koherentzia adierazitako helburuekin eta ase nahi diren prestakuntza-premiekiko – aurrekoa) apartatuan adieraziak– (gehienez 25 puntu)**

Edukiak (8 puntu)

Aurreikusitako programazioa eta honako hauekin zuzenean lotutako edukiak (8 puntu):  
 – Autonomia pertsonala hobetzeko eta 55 urtetik gorakoen parte-hartze sozialerako gaitasuna, edo  
 – Lanbide-kualifikazioa hobetzeko eta eguneratzeko prozesuetan sartzeko oinarrizko konpetentziak eskuratzea.

Metodologia (7 puntu)

Xehatua, arrazoitua eta jardueraren eduki, helburu eta hartzaileekin bat datorrena (7 puntu)

Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak (6 puntu)

Esperotako ikaskuntza-emaitzak lortu direla bermatzea ahalbidetzen duten ebaluazio-irizpideak zehazten dira. (6 puntu)

Proiektuaren garapenerako behar den egutegia eta ordu-iraupena (4 puntu)

Xehatua eta eduki eta helburuekin bat datorrena (4 puntu)

**GUZTIZKO PARTZIALA**

**GUZTIRA (GEHIENEZ 75 PUNTU)**

## III. ERANSKINA

## PROIEKTU MOTA: IKASKUNTZAKO BITARTEKARITZA-ZERBITZUAK

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

**a) Erakundearen kaudimen teknikoak ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuak edo prestakuntzarako informazioa eta aholkularitza ematean, eta jarduera euskaraz zein gaztelaniaz egiteko gaitasuna (gehienez 25 puntu)**

*Ikaskuntzako bitartekaritza-zerbitzuaren eskura jarritako pertsonak bizialdi osoko prestakuntzarako informazioaren eta aholkularitzaren alorrean egiazta dezaketean eskarmentuan oinarrituko da gaitasun teknikoa.*

Eskatutako bitartekaritza-zerbitzuan bitartekariak generoak baldintzatu gabeko prestakuntzarako ikaskuntza-bitartekaritzaren edo informazio eta aholkularitzaren eremuan duten eskarmentu osagarriko (bigarren esperientzia-urteetik aurrera) urte bakoitzeko (gehienez guztira 10 puntu, baldin eta ebidentziak aurkezten badira).

- Esperientzia-urte osagarri bakoitzeko: puntu 1 urteko (gehienez 5 puntura arte).
- Bitartekaritza-zerbitzua egingo den eremu bereko esperientzia-urte osagarri bakoitzeko: puntu 1 urteko (gehienez 5 puntura arte).

Balorazio hori hainbanatu egingo da, hala badagokio, zerbitzuan jarduten diren bitartekari kopuruaren arabera.

Bitartekaritza-zerbitzuaren esku dagoen bitartekariak azken 3 urteetan emandako kompetentzia profesionalen ebaluazioarekin eta egiaztapenarekin zuzenean lotutako informazio-jardunaldi bakoitzeko (0,5 puntu, gehienez 2 puntura arte, baldin eta ebidentziak aurkezten badira).

Balorazio hori hainbanatu egingo da, hala badagokio, zerbitzuan jarduten diren bitartekari kopuruaren arabera.

Bitartekaritza-zerbitzuaren esku dagoen bitartekariak uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaren arabera Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko euskararen C1 maila eta horren baliokideak egiaztatzea. Dekretu horrek euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua aldatzen du (5 puntu, baldin eta ebidentziak aurkezten badira).

Bitartekaritza-zerbitzuaren esku dagoen bitartekariak jaso dituen emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zuzenean lotutako gaiei buruzko eta gutxienez 20 orduko ikastaro bakoitzeko (1 puntu ikastaroko, gehienez 4 puntura arte, baldin eta ebidentziak aurkezten badira). 150 ordu baino gehiagoko ikastaroak 4 punturekin baloratuko dira.

Balorazio hori hainbanatu egingo da, hala badagokio, zerbitzuan jarduten diren bitartekari kopuruaren arabera.

Proiektua garatzeko eskuragarri jarriko diren baliabide teknikoak (espazioak, ekipamenduak, softwarea...) eta materialen (hizkuntza ez-sexista erabiliz idatzitako testuak, rolak hausten lagunduko duten irudiak...) deskribapen zehatza (4 puntu baldin eta ebidentziak aurkezten badira).

**GUZTIZKO PARTZIALA**

**b) Eremuan bizialdi osoko ikaskuntza sustatzeko jarduketa-plan bat planifikatzea eta garatzea, lortu nahi diren helburuak eta horien lorpena ebaluatzea ahalbidetuko duten adierazleak argi eta garbi adierazita (gehienez 20 puntu)**

Jardun nahi den eremurako jarduketa-plan bat planifikatzen eta garatzen du, prestakuntza herritar guztiei hurbiltzeko helburuarekin. Garatu beharreko jarduketa-planaren deskribapen zehatza, lortu nahi diren helburuak eta horien lorpena ebaluatzeko prozedura jasotzen ditu (7 puntu)

Erakundeekin, hezitzaileekin eta eremuko beste prestakuntza-eragile batzuekin lan proaktiboa egiten du. Garatu beharreko lan proaktiboaren deskribapen zehatza, lortu nahi diren helburuak eta horien lorpena ebaluatzeko prozedura jasotzen ditu (7 puntu)

Bizialdi osoko ikaskuntzaren jarduera espezifikoak sustatzen, diseinatzen eta garatzen ditu. Garatu beharreko jarduketaren deskribapen zehatza, lortu nahi diren helburuak eta horien lorpena ebaluatzeko prozedura jasotzen ditu (6 puntu)

**GUZTIZKO PARTZIALA**

**c) Gauzatu nahi den bitartekaritza-zerbitzuaren edukiaren zehaztasun-maila, honako hauek jasotzen direla: zerbitzua eman nahi dien pertsonen kopurua, horien tipologia, zerbitzua emandako pertsonen prestakuntza-ibilbidearen jarraipena eta sustapena (gehienez 30 puntu)**

Zenbat pertsonari emango zaien informazioa, aholkuak eta haien prestakuntza-ibilbidea bultzatu aurrez aurre, sexuka bananduta (gehienez 4 puntu)

$\geq 1.000$  pertsona (4 puntu)

$500 \leq$  pertsona  $< 1.000$  (2 puntu)

$300 \leq$  pertsona  $< 500$  (1 puntu)

Zerbitzua emango zaien pertsonen (emakumeak eta gizonak) tipologia (gehienez 4 puntu)

Zerbitzua eman beharreko kualifikazio baxuko edo prestakuntza-maila baxuko populazioaren ehunekoa  $\geq$  % 60 (4 puntu)

Zerbitzua eman beharreko kualifikazio baxuko edo prestakuntza-maila baxuko populazioaren ehunekoa  $\% 40 \leq x < \% 60$  (2 puntu)

Prestakuntza-ibilbide indibidualizatuaren jarraipena eta sustapena (gehienez 10 puntu)

Pertsona bakoitzari aholkua emateko prozesua banakakoa eta xehatua da, gizartean ezarri ohi diren genero-rolak kontuan hartuta: banakako helburuak zehaztuko dira, eta laguntza banaka eman eta haien jarraipena ere banaka egin behar da (7 puntu)

Emandako zerbitzu indibidualizatuaren aurreikusitako ebaluazioa: ebaluazio-tresnen zehaztapena (3 puntu)

Bitartekaritza-zerbitzuaren helburuen eta lan-metodologiaren zehaztapen-maila (gehienez 12 puntu)

Bitartekaritza-zerbitzurako aurreikusitako helburu zehatzak, lortzeko moduak, neurgarriak eta ebaluagarriak (4 puntu)

Adierazle zehatzak helburuak lorpena ebaluatzeko (4 puntu)

Aurreikusitako metodologiaren deskribapen zehatua, zerbitzuaren helburuekin eta populazio hartzailearen topologiarekin bat (3 puntu)

Proiektuaren garapenerako egutegi zehatza (1 puntu)

**GUZTIZKO PARTZIALA**

**GUZTIRA (GEHIENEZ 75 PUNTU)**

## IV. ERANSKINA

## PROIEKTU MOTA: ESPERIMENTAZIO-PROIEKTUAK

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

a) **Proiektuaren zehaztasun-maila, ondoko hauek modu zehatzean adieraziz: aurrera eraman nahi den esperimentazio-plana; lortu nahi diren helburuak; ebaluatzeko adierazleak; egutegia; metodologia; zein kolektiborengan izango duen eragina, kolektibo horrek edo horiek zenbat eta nolakoak diren; eragingo zaien pertsonak, ustez, zein onura jasoko dituzten; proposatutako helburuak lortu diren ala ez ebaluatzea; eta eskatzaileak proiektua ulertzeko garrantzitsutzat jotzen duen beste edozein informazio (gehienez 45 puntu)**

- Esperimentazio-plana gai hauetako bati buruzkoa da (30 puntu):
- eduki irekiak ikasteko objektuak prestatzea, batez ere kualifikazio baxua duten pertsonentzat,
  - prestatzeko-ikasteko metodologia berriak,
  - ezagutzaren belaunaldi arteko transferentzia.
- Zehazki deskribatutako helburu neurgarri eta ebaluagarriak (3 puntu)
- Zehazki ezarritako ebaluazio-adierazleak, helburuekin bat datozenak (2 puntu)
- Proiektuaren garapenerako egutegi zehatza (2 puntu)
- Metodologia xehetasunez deskribatua eta irmoki arrazoitua (2 puntu)
- Eragina izango duten kolektiboen deskribapen zehatza: kopurua eta tipologia (2 puntu)
- Proiektuak taldeari ekarriko dizkion onurak zehaztasun handiz deskribatuta eta egiaztatuta, eta emakumeen eta gizonen artean egon litezkeen aldeak adierazita (2 puntu)
- Tresnen deskribapen zehatza eta helburuak lortzeari buruzko ebaluazio-prozedura (2 puntu)

 **GUZTIZKO PARTZIALA**

b) **Erakunde eskatzaileak proiektua aurrera eramateko dituen baliabide teknikoak eta giza baliabideak, proiektuaren egileak eta hura aurrera eramango dutenek zein kualifikazio eta esperientzia duten adieraziz (gehienez 30 puntu)**

- Proiektuaren garapenean zuzenean parte hartuko duten pertsonak irakaskuntza-ikaskuntzako metodologietako, ikaskuntza sustatzeko eta prestakuntzako esperimentazio- edo ikerketa-proiekturen batean parte hartu badute, parte hartze bakoitzeko (gehienez 1 puntu, gehienez 10 puntu arte, baldin eta ebidentziak aurkezten badira)
- Uztailaren 4ko 187/2017 Dekretuaren arabera Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko euskararen C1 maila eta horren baliokideak egiaztatzen dituen eskatutako proiektuari zuzenean lotutako profesional bakoitzeko. Dekretu horrek euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dekretua aldatzen du (2,5 puntu, gehienez 5 puntu arte, baldin eta ebidentziak aurkezten badira).
- Proiektuaren garapenean zuzenean parte hartuko duen profesionalak jasotako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zuzenean lotutako gaien buruzko eta gutxienez 20 orduko ikastaro bakoitzeko (2,5 puntu ikastaroko, gehienez 5 puntu arte, baldin eta ebidentziak aurkezten badira). 150 ordu baino gehiagoko ikastaroak 5 punturekin baloratuko dira.
- Proiektua garatzeko eskuragarri jarriko diren baliabide teknikoaren deskribapen zehatza (espazioak, ekipamendua, softwarea...), horien egokitasuna ebaluatzea ahalbidetuko dutenak (10 puntu)

 **GUZTIZKO PARTZIALA**
 **GUZTIRA (GEHIENEZ 75 PUNTU)**

2023ko ekainaren 14a, asteazkena

V. ERANSKINA  
 DESKRIBAPEN-MEMORIA  
 BIZIALDI OSOKO IKASKUNTZAREN ARLOKO JARDUKETAK  
 PRESTAKUNTZA-JARDUERA ESPEZIFIKOAK

ERAKUNDE ESKATZAILEA  
 PROIEKTUAREN IZENA


Jarduera nori zuzentzen zaion pertsonen kolektiboa

Prestakuntza-jardueren hartzaileen adina: amaierako memorian hasierako eskaeran adierazitakoaren % 20tik gorako desbideratzerik antzematen bada, eskaerako balorazioa berrikusiko da.

	Prestakuntza-jardueraren hartzaileak 30 urtetik gora dituzten eta Bigarren Hezkuntzako graduatua lortu ez duten pertsonak dira
	Prestakuntza-jardueraren hartzaileak 55 urtetik gorakoak dira
	Jarduera zuzentzen zaion pertsonen kolektiboa ez dago deskribatuta aurreko bi puntuetan.
	Jardueraren hartzaileen zerrenda erantsi da, datuak sexuaren eta adinaren arabera bereizita
	Karaktereetara mugatutako testua

Bete nahi diren prestakuntza-premiak.

	Lanbide-kualifikazioa hobetzeko eta eguneratzeko prozesuetan sartzeko beharrezkoak diren oinarrizko kompetentzietako gabeziekin lotuta daude premiak
	Karaktereetara mugatutako testua
	55 urtetik gorako kolektiboa: ase nahi diren prestakuntza-premiak autonomia pertsonala hobetzeko, parte-hartze soziala eta boluntarioritza sustatzeko eta inguruko proiektu komunitarioekiko lotura sustatzeko gaikuntzarekin lotuta daude
	Karaktereetara mugatutako testua

	Ase nahi diren prestakuntza-premiak ez daude deskribatutako aurreko bi puntuetan. Lortu nahi diren helburuak
--	---

	Lanbide-kualifikazioa hobetzeko eta eguneratzeko prozesuetan sartzeko oinarrizko kompetentziak eskuratzearen arlokoak dira helburuak
	Karaktereetara mugatutako testua
	55 urtetik gorako kolektiboa: autonomia pertsonala eta herritarren partaidetza hobetzearen arlokoak dira helburuak
	Karaktereetara mugatutako testua
	Lortu nahi diren helburuak ez daude deskribatutako aurreko bi puntuetan.
	Helburuak bat datoz hartzaileen kualifikazioarekin eta prestakuntza-premiekin
	Karaktereetara mugatutako testua

Prestakuntza-jardueraren programazioa eta edukia, metodologia eta egutegia

	55 urtetik gorako kolektiboa: aurreikusitako programazioa eta edukiak zuzenean daude lotuta 55 urtetik gorakoen autonomia pertsonala eta parte-hartze soziala hobetzeko gaikuntzarekin
	Karaktereetara mugatutako testua
	Aurreikusitako programazioa eta edukiak zuzenean daude lotuta lanbide-kualifikazioa hobetzeko eta eguneratzeko prozesuetan sartzeko oinarrizko kompetentziak eskuratzearekin
	Karaktereetara mugatutako testua
	Aurreikusitako programazioa eta edukiak ez daude deskribatutako aurreko bi puntuetan.

	Metodologia xehatua, arrazoitua eta jardueraren eduki, helburu eta hartzaileekin bat datorrena
	Karaktereetara mugatutako testua
